

Ahaidetasunaren arlo semantikoa euskaraz

1. Horst Geckeler-ek bere «Strukturelle Semantik des Französischen»¹ deritzon liburuan proposatzen duen eskemaz baliaturik, euskararen arlo semantiko honen ikerketa egiten saiatuko naiz oraingoan; bide batez, euskara batuaren hiztegia arlo honetan finkatzeko, kasu bakoitzean egokien irudi zaizkidan hitzak proposamendu antzean aurkeztuko ditut, aipatuko ditudan terminu guziak hiztegi hauetatik aterata daudelarik:

- Resurrección María de AZKUE, *Diccionario vasco-español-francés*, editorial de la gran enciclopedia vasca, Bilbao, 1969.
- Xabier KINTANA, Joseba TOBAR, *Euskal hiztegi modernoa*, editorial Cinsa, Bilbao, 1977.
- Pierre LHANDE, *Dictionnaire basque-français*, Gabriel Beauchesne éditeur, Paris, 1926.
- Plácido MUGICA, *Diccionario castellano-vasco*, El mensajero del Corazón de Jesús, Bilbao, 1965.
- André TOURNIER, Pierre LAFITTE, *Dictionnaire français-basque*, éditions Herria, Bayonne, 1953.

Dialektalismoak aparte utzi ditut. Dialektalismotzat beren fonetismoagatik euskara idatzian onhartzen ohi ez diren hitzak hartu ditut, eta era berean euskara batuaren fonologiari jarraikitzen ez zaiena, ez baina euskalki batetan ala bestetan erabiltzen diren, eta aitatu baldintzak betetzen dituzten, berba ezberdin zenbait, sinonimo bezala eman ditudanak. Horrela, bada, «kusi» dialektalismotzat jo dudalarik baztertua izan da «gusu»ren parean, «izeko» berriz, Bizkaian eta Gipuzkoako itsasaldean erabiltzen dena, «izeba»ren sinonimotzat izan da onhartua. Horregatik hitzok ematean, maila bereko sinonimo asko agertzen direnean, lantzean behin horietako bat majuskulaz idatzi dut, zera adierazteko, horrek izan behar dukeela, ene aburuz, besteak

¹ Horst GECKELER, *Strukturelle Semantik des Französischen*, Max Niemeyer Verlag, Tübingen, 1973.

ANDOLIN EGUZKITZA

beste, lehen mailako hitza, gainenakoak hizkuntza literarian erabiltzekoak izanez bakarrik. Beste arlo bateko berbak aipatzearen:

- ETSAI, arerio, izterbegi.
- UDABERRI, bedats.
- UDAZKEN, larrazken.
- ERAMAN, eroan.
- SORO, elge.
- HAURDUN, seindun.

Ez dut ukatzen metodu honek duen arbitraritasuna, ez eta beharbada berba interesgarri batzu ahantzi ex ezik, alboratu ere egin dituzkedala, horregatiko zerbaite balio dukeelakoan, honela dut lantxoa burutu.

2. Orduan, bada, hau ezartzen du Geckeler-ek ikerketaren abiapundu bezala Weisgerber-ri jarraikitzen zaiola (Weisgerber, L.: *Grundzüge der inhaltsbezogenen Grammatik*, Düsseldorf, 1962³): «Es gibt eine in der Natur vorgezeichnete (oder uns mindestens so erscheinende) Ordnung, die für jedes höhere Lebewesen und insbesondere für den Menschen die Summe der Beziehungen umfasst, die wir als *Verwandtschaft* herausheben. Man kann dieses System der natürlichen verwandtschaftlichen Beziehungen eines Menschen (sie sind für alle Menschen objektiv gleich) in einem allgemein anwendbaren Schema veranschaulichen.»². Guk eskema euskaratu dugu:


Laburduren azalpena:

- B = belaunaldia.
- Ego = harremanen gunea.
- A = aita, Am. = ama.
- S = semea, Al. = alaba.
- AS = aitaren semea, AAIAl = aitaren alabaren alaba, e.a.

² 1. oharrean aip. lib., 44. or.


AHAIDETASUNAREN ARLO SEMANTIKOA EUSKARAZ

Harreman genealogiko hurbilenen sistema naturala (oso bakundua):



(3)

Orain, berriz, eskema erraztu eta bakun /hau/ euskaraz nola egiten den ikusiko dugu:



(4)

— : harreman genealogiko naturalak

— — — — : harreman designatiboak, guztiak EGoren baitan mugatuak.

3 1. oharrean aip. lib., 45. or.

4 1. oharrean aip. lib., 46. or.

ANDOLIN EGUZKITZA

Arlo hau hiru zatitan ikertuko dugu beraz:

- Odolahaidetasuna.
- Ezkontahaidetasuna.
- Ahaidetasuna adierazten duten hitz orokorrak.

3. Odolahaidetasuna.

B₊₀ *anaia*

neba: bizkaieraz mintzo den eskualdean izan ezik, Euskal Herri osoan «anaia»z ordezkatua.

arreba

AHIZPA, aizta

haurride: edozein dela, anaia, neba, arreba edo ahizpa.

anaiak

ahizpak

anai-arrebak, haurrideak, neba-arrebak

biki, biritxi, bizki

gusu: primo, cousin. Terminu orokorra.

gusina: prima, cousin. Terminu orokorra.

gusuak

gusinak:

gusu-gusinak

lehengusu: primo carnal edo primo hermano, cousin germain. Kintanak bere hiztegian hitz hau ematen du terminu orokorra bezala. Toki batzuetako erabilkuntzak, ordea, eta orobat berbaren egiturak berak differentzia honi eustera bultzatu naute, /gusu-lehengusu/ delakoari, alegia.

lehengusina: prima carnal edo prima hermana, cousin germaine. Ikus «lehengusu».

lehengusuak

lehengusinak

lehengusu-gusinak

bestegusu: primo segundo, cousin issu de germain. Kintanak «bestele-hengusu» ematen du.

AHAIDETASUNAREN ARLO SEMANTIKOA EUSKARAZ

bestegusina: prima segunda, cousinne issue de germaine. Kintanak halaber «bestelehengusina» ematen du.

bestegusuak

bestegusinak

bestegusu-gusinak

B₊₁ *aita*

ama

aitamak, aitetamak, GURASOAK

osaba

IZEBA, izeko

OSABA-IZEBAK, osaba-izekoak

B₊₂ *aitajaun, aitañi, aitaso, aitita, aitona*

amama, amañi, amaso, amona

aitañi-amañiak, aitaso-amasoak, aitita-amamak, aiton-amonak

apa (?): tío abuelo, grand-oncle.

añe (?): tía abuela, grande-tante.

apa-añeak (?): tíos abuelos, grands-oncles et grandes-tantes.

B₊₃ *berraitita, berraitona*

berramama, berramona

berraitita-amamak, berraiton-amonak

B₊₄ *herenaitona, okilaso*: hitz hau, hurrengo belaunaldian agertu behar duen «tokabilaso» bera bezala, oso modu arbitrari batez, topa daitezkeen guztien artean errazenak izateagatik aukeratu ditut.

herenamona

herenaiton-amonak

B₊₅ *laurdenaitona, tokabilaso*

laurdenamona

laurdenaiton-amonak

B₋₁ *seme*

alaba

ANDOLIN EGUZKITZA

seme-alabak

errekokoseme, sasiko, sasikume

errekokalaba, sasiko, sasikume

errekokoseme-alabak, sasikoak, sasikumeak

loba: sobrino edo sobrina, neveu edo nièce. Hemen arazo ezagun bat gertatzen da, «Loba»k eta «iloba»k, toki batzuetan bata eta bestea besteetan, neba-arreben seme-alabak adierazteaz gain, zera ematen dutelako aditzera, gurasoekiko ene seme-alaben ahaide-tasuna. Horregatik, eta etnografiaren arloan sartu gabe, problema etnologiko bat edo eta linguistiko hutsa ote datekeen bide zuenetik ez baitakitz, eta beharbada, beraz, euskal senikeraren egitura zaharra zabartuz, inguratzen gaituzten hizkuntzetan dagoen ezberdintasuna gordetzera jo dut, Xabier Kintanak eta Joseba Tobar-ek «Hiztegi modernoa»n egiten duten legez. Korapiloa baina askatzear dago oraino.

lobak

bestegusu: primo segundo, petit-cousin.

bestegusina: prima segunda, petite-cousine.

bestegusu-gusinak

B-₂ *arraseme, iloba, semeso:* nieto, petit-fils.

alabaso, iloba: nieta, petite-fille.

haursoak, ilobak: nietos, petits-enfants.

*loba ttipi, *lobaso:* azken terminu hau inongo hiztegitan agertu ez arren, «ilobaso»ren analogiaz nik neuk asmatu dut. Sobrino edo sobrina segundos, petit-neveu (arrière-neveu) edo petite-nièce (arrière-nièce).

**lobasoak, loba ttipiak*

herengusu: primo tercero, arrière-petit-cousin.

herengusina: prima tercera, arrière-petite-cousine.

herengusu-gusinak

B-₃ *BILOBA, bilobaso, birloba:* biznieto edo biznieta, arrière-petit-fils edo arrière-petite-fille.

arrailobatxoak, BILOBAK, birlobak, bilobasoak: biznietos, arrière-petits-enfants.

AHAIDETASUNAREN ARLO SEMANTIKOA EUSKARAZ

**herenloba*: analogiaz sorturiko forma, hots, sobrino edo sobrina terceros, arrière-petit-neveu edo arrière-petite-nièce.

herenlobak

B-4 *hereniloba*: tataranieto edo tataranieta, frantsesez ez dut terminu bezirik ezagutzen.

herenilobak

B-5 *laurdenilobak, tokilailoba*: chozno edo chozna.

laurdenilobak, tokilailobak: choznos.

Ikuspegia orokor bat edukitzearren, Geckeler-ek dakarren eskema euskaratuko dut.

S = soka

eskeman berba bat bakarrik jarriko dut koadrotxo bakoitzean generu batbederaren arauera, eta 3 belaunaldi barik, 5 markatuko ditut⁵.

5 1. -oharrean aip. lib., 50. or.

ANDOLIN EGUZKITZA

	S ₀	S' ₀	S ₁	S ₂	
B+5	laurdenaitona				♂
	laurdenamona				♀
B+4	herenaitona				♂
	herenamona				♀
B+3	berraitona				♂
	berramona				♀
B+2	aitona			apa (?)	♂
	amona			añe (?)	♀
B+1	aita		osaba		♂
	ama		izeba		♀
B+0	E G O	anaia, neba	lehengusu	bestegusu	♂
		ahizpa, arreba	lehengusina	bestegusina	♀
B-1	seme	loba	bestegusu		♂
	alaba		bestegusina		♀
B-2	iloba	lobaso	herengusu		♂
			herengusina		♀
B-3	biloba	herenloba			♂
					♀
B-4	hereniloba				♂
					♀
B-5	laurdeniloba				♂
					♀

AHAIDETASUNAREN ARLO SEMANTIKOA EUSKARAZ

4. Ezkontahaidetasuna.

B→₀ *anaiorde*
neborde
arreborde
ahizporde
ugazaurride: edozein dela, anaiorde, neborde, arreborde edo ahizporde.
anai-arrebordeak, neba-arrebordeak, ugazaurrideak
anaierdi
neberdi
arreberdi
ahizperdi
haurriderdi, seniderdi: edozein dela, neberdi, anaierdi, arreberdi, edo ahizperdi.
anai-arreberdiak, haurriderdiak, neba-arreberdiak, seniderdiak
bularranaia, emekide, titianaia
bularneba, emekide, titineba
bularrarreba, emekide, titiarreba
bularrabizpa, emekide, titiahizpa
bularranai-arrebak, bularneba-arrebak, emekideak, titianai-arrebak, titineba-arrebak
senar
emazte
senar-emazteak
ezkonanaia, ezkonneba, ezkosenide, KOINATU
ezkonabizpa, ezkonarreba, ezkosenide, KOINATA
ezkonanai-arrebak, ezkonneba-arrebak, ezkosenideak, KOINATU-KOINATAK
anaieder, ezkonanaikide, KOINATUKIDE
ezkonnebaide, KOINATUKIDE
arrebeder, ezkonarrebeder, KOINATAKIDE
ezkonahizpeder, KOINATAKIDE
anai-arrebederrak, KOINATU-KOINATAKIDEAK
subi

ANDOLIN EGUZKITZA

ERRAIN, basamats

suh-i-errainak

aitabesoetako, aitabitxi, aitaponteko

amabesoetako, amabitxi, amaponteko

aita-amabesoetakoak, aita-amabitxiak, aita-amapontekoak

aitaide

amaide

aita-amaideak

B₊₁ *aitaginarreba*

amaginarreba

aita-amaginarrebak

guraskide

guraskideak

aitaizun, aitorde, ugazaita

amaizun, amorede, ugazama

aita-amaizunak, aita-amordeak

aña, inude

B₋₁ *semeizun, semeorde, ugazeme, ugazume*: hijastro, fillâtre (beau-fils).

alabaizun, alaborde, ugazalaba, ugazume: hijastra, fillâtre (belle-fille).

seme-alabaizunak, seme-alabordeak, ugazeme-alabak, ugazumeak

haurrorde, semetzako: hijo adoptivo, fils adoptive.

haurrorde, alabatzako: hija adoptiva, fille adoptive.

haurrordeak, seme-alabatzakoak

besoetako, haurbesoetako, semebitxi, semeratsi

besoetako, haurbesoetako, alababitxi, alaberatsi

besoetakoak, haurbesoetakoak, seme-alaberatsiak, umebitxiak

5. Hitz orokorrak.

ahaide (apur bat urruna), *askazia, senide* (hurbila), *senitarteko, senikide*: hurbiltasuna adierazteko «senide»ri izan ezik «urko» edo «hurbil» izenlagunak erantsi behar zaizkie beste terminu guziei.
ahaideria (apur bat urrun), *askazgo, senikeria*

AHAIDETASUNAREN ARLO SEMANTIKOA EUSKARAZ

abaidego, abaideetasun, abaiko, askazgo, askazkunde, senidetasun, (hurbila denean), senikera (urruna)
askaziondar, iztersenide: pariente remoto, parent lointain, maskulino
edo femeninoa.
iztersenidetasun: parentesco lejano, parenté lointaine.
aintzinakoak, arbosoak, asabak, lehenagokoak: antepasados, ancêtres.
ondokoak: posteridad, posterité.
odolahaide, odolsenide
berezko senikera, odolahaidego, odolahaidetasuna, odolekotasun, odolkidetasun
ezkontahaide, abaide eratsi: pariente por afinidad, parent par alliance.
ezkontahaidego, ezkontahaidetasun, senikera erantsi: parentesco por
afinidad, parenté par alliance.
odol, odoleko, odolkide: consanguíneo, consanguin.
odolkidego, odolkidetasun: consanguinidad, consanguinité.
umontziko: uterino, uterin.
aitabitxigo, aitabitxitasun: padrinazgo, parrainage.
amabitxigo, amabitxitasun: madrinazgo, marrainage.
familia, senitarte

Andolin EGUZKITZA

